


# KOKORIKO

## LIBURUAREN FITXA

NÚÑEZ, Marisa; BANSCH, Helga, il. *Kokoriko*. OQO-Txalaparta, 2009

## Aurkezpena

Kontraesanean dauden emozioak nahasten dira ipuin honetan: debekua haustea, jazarpen baten aurreko beldurra, obedientzia, gezurra esatea… Bizkotxo goxo bat prestatzen du oilo amak.Dena hasiko da Kokorikok bere ama oiloari bizkotxo bat egitea eskatzen dionean. Amak sua pizteko egurra ekartzeko eskatzen dio, baina haren bila doala katu gaiztoarekin egiten du topo; honek bizkotxo zati bat eskatzen dio bere bizitzaren truke.... Geroxeago Kokoriko bihurriak gauzak konplikatu egingo ditu, ipuina bukaera bitarteko intriga kilikagarri batean.

## Kontaketa

- Ipuin honetan azpimarratu behar dira Kokoriko txitak erakusten dituen emozioak. Horiek kokatzen has.
- Orriz orri behatuko ditugu marrazkiak eta irakurriko ditugu testuak ea antzematen dugun zer gertatzen den.
- Ilustrazioen espresioa aztertu haurrekin: kolorearen erabilera, mugimendua, urgentzia…

## Proposamenak luzatzen

- Kalean noizbait sentitu duzu norbaiten beldurra? Eskolan? Etxean?
- Kokorikok ez zuen hitza bete; zuk noizbait egin duzu horrelakorik?
- Esan Kokorikori zergatik bete behar duen eman duen hitza

## Proposamenak zehazten

- Etxean bizkotxoak egiten dituzue?
- Masa pixka bat jaten duzu? Zer esaten dizute gurasoek, zer esaten duzu zuk?
- Kontakizuna oinarri hartuta, antzezpen bat egin.
- Ipuina oinarri hartuta antzerki bat egin.
- Beste gelakoak gonbidatu.